

ESKOLAKO JUDOAREN ARAU ESPEZIFIKOAK 2020-2021 IKASTURTERAKO

1. Kirol-diziplinaren lehiaketa-jardueren izena.

JUDO-AIKIDO-JIU JITSU-KENDO-WU SHU-DEFENTSA PERTSONALA

2. Kirol-diziplinaren lehiaketa-jardueren joko-erregelamenduak.

- Pisaketa zozketa bidez egingo da, lehiakide kopuruaren arabera.
- 二 Kategoria bakoitza pisuka banatuko da, lehiaketa-eremuan jende gutxiago sar dadin.
- 三 Ez da lurreko lanik egingo benjamin eta alebin kategorietan.
- 四 Trofeoak ematean, derrigorrezkoa izango da kirolariak eta sariak banatzen dituen pertsonak maskara erabiltzea.

3. Kirol-federazioek antolatutako lehiaketa edo jardueretarako jarduera-arauak.

Kirolarien zerrenda bat izatea, ordutegia eta bertaratutakoen taldeak eta azpitaldeak egunero kontrolatzeko. Zerrenda hori klubaren zaintzapean geratuko da, 2020-2021 denboraldia amaitu eta hilabetera arte mantendu beharko da, eta kirol- edo osasun-agintariek eskatu ahal izango dute.

4. Erakunde parte-hartzaileen barruan egin beharreko entrenamendu eta saioetarako jarduera-arauak.

- Oinak xaboi-urarekin edo paper-zapi desinfektatzailearekin garbitzea, entrenamendu-gelara oinutsik sartu aurretik ("tatamiak").
 - 二 Sarrera eta irteera mailakatua, txandaka edo hainbat sarbidetatik (halakorik balego).
 - 三 Lurreko judoko lana saihestea, lurreko lan teknikoa eta taktikoa banakako panpina propioekin egingo da.
 - 四 Irakaslea pantaila babeslea edo maskara jantzita.
- Sarrera eta irteera mailakatua, txandaka edo hainbat sarbidetatik (halakorik balego).
Saio berean elkarren segidako bi entrenamendu edo gehiago badaude talde desberdinekin: aireztapena 5 minutuz

edo/eta instalazioa garbitzea lainoztagailu desinfektatzailearekin (zorua, hormak, altzariak eta material finko eta mugikorrak).